

**GOIERRIN INDARKERIA PAIRATZEN
DUTEN EMAKUMEEI ARRETA
EGOKIA ETA KOORDINATUA
EMATEKO PROTOKOLOA**

**(Sexu-erasoak eta
genero-indarkeria)**

BERTSIO OPERATIBOA

PROIEKTUA HONAKO UDALOK

BULTZATU DUTE:

- ✓ Alzaga
- ✓ Arama
- ✓ Ataun
- ✓ Beasain
- ✓ Gabiria
- ✓ Gaintza
- ✓ Idiazabal
- ✓ Itsasondo
- ✓ Lazkao
- ✓ Legorreta
- ✓ Mutiloa
- ✓ Olaberria
- ✓ Ordizia
- ✓ Ormaiztegi
- ✓ Segura
- ✓ Zaldibia
- ✓ Zegama
- ✓ Zerain



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

DIRUZ-LAGUNDUA

1. SARRERA	4
I. Zein indarkeria-esparrutara dago zuzenduta protokolo hau?.....	4
2. IBILBIDEAK.....	5
SEXU ERASOAK	6
GENERO INDARKERIA: Larrialdiko laguntza	9
GENERO INDARKERIA: lehentasunezko arreta.....	14
3. PROTOKOLOAREN JARRAIPENA ETA KOORDINAZIOA	17
I. KOORDINAZIO BATZORDEKO kideak.....	17
II. KOORDINAZIO BATZORDEAREN eginkizunak	18
III. JARRAIPEN BATZORDEAK egingo dituen bileren maiztasuna....	18
IV. Nor arduratuko da deialdiez, jarraipenaz...?	18
4. KONTAKTUEN / BALIABIDEEN AGENDA	19
5. DATU PERTSONALAK PARTEKATZEKO / EMATEKO BAIMENA.....	19

1. SARRERA

Protokoloaren eratze prozesuan parte hartu zuten pertsona eta eragileekin adostu zen moduan, dokumentu hau “Goierri indarkeria pairatzen duten emakumeei arreta egokia eta koordinatua emateko protokoloa”-ren bertsio operatiboa izango da. Dokumentu honetarako, emakumeak artatzeko eguneroko lanerako, profesionalentzat erabilgarrien diren atalak aukeratu dira.

I. Zein indarkeria-esparrutara dago zuzenduta protokolo hau?

Berez, protokolo honek GENERO INDARKERIA eta SEXU ERASOAK deitzen ditugun jardura-esparru horiek jasotzen ditu bere baitan. Nahiz eta gizartearen irakurketa feminista batetik etxean pairatzen den indarkeriarekin lotura duten kasuak ere genero-indarkeria edo emakumeen aurkako indarkeria direla esan dezakegun, ibilbide bakoitza, eta kaltetutako emakumeek eskuragarri edukiko dituzten zerbitzuak eta baliabideak zehazten dituen errealitate juridikoak (erasotzaileak egindako hoben edo delitu bakoitzak ekarriko dizkion ondorioak, esaterako) ezinezkoa egiten du kasu horiei guztiei erantzun bateratu bat emango dien jardun-protokolo bateratua lantzea.

2. IBILBIDEAK

Jarraian, sexu-erasoak eta/edo genero-indarkeria pairatu duten emakumeek egin ditzaketen bideak azalduko ditugu. Ahalik eta dokumenturik operatiboena egiten saiatu gara; horrela bada, ibilbide bakoitzaren deskribapenean funtsezko hiru galderari erantzun diegu.

- Zein inguruabarrek mugatzen dituzte kasu horiek?
- Zein eragilek erantzungo diete egoera horiei?
- Zein dira egin beharreko lanak edo eman beharreko urratsak?

SEXU ERASOAK

Zein inguruabarrek mugatzen dituzte kasu horiek?

Sexu-erasoen kasuan, eraso gertatu eta 72 orduko epearen barruan emango den arretaren ondorioz jasoko diren proba ginekologikoei balia edukiko dute. Gainerakoan, eta gainerako eragileen esku-hartzeari dagokionez, ez legoke inolako bereizketarik lehenengo 72 orduetan nahiz gerokoetan.

Zein eragilek erantzungo diete larrialdi egoera horiei?

- Oriako Ertzainetxea
- Zumarragako ospitaleko larrialdietarako zerbitzua
- Eskualdeko osasun-zentroetako oinarrizko osasun-laguntzako zerbitzuak, edo Beasaingo osasun-zentroko larrialdietarako zerbitzua.
- Auzitegi-medikuntzako profesionala, epaitegiak bidalia. Bere eginkizuna izango da eraso gertatu eta 72 orduko epean analisi ginekologikoa egitea, eta probak batzea.
- SOS DEIAK larrialdietako telefonoa (112); zerbitzu horrek jarriko ditu gainerako eragileak jakinaren gainean (ertzaintza, ospitalea, anbulantzia...).

Zein dira egin beharreko lanak eta eman beharreko urratsak?

Lehen arreta:

Alderdi orokorrak:

- Emakumearen osotasun fisikoak nahiz emozionalak du lehentasuna; hortaz, ez zaio aitortzen hartuko pertsonal sanitarioak eta/edo epaitegiko auzitegi-medikuntzako profesionalak azterketa egin arte.
- **Emakumea adingabekoa bada**, familiari nahiz adingabekoaren tutoretza daukanari deituko zaio. Erasotzailea adingabekoa bada, adingabeen auzitegiari emango zaio horren berri.

Oriako Ertzainetxea:

Kaltetutako emakumea ertzainetxera joaten bada, edo ertzaintzak sexu-erasoa izan den indarkeria-gertakari batean parte hartzen badu, kasu horietarako zehaztuta dagoen jarduera-protokoloa jarriko da martxan. Ertzainek Zumarragako ospitaleko larrialdietarako zerbitzura lagun egingo diote emakumeari, eta, ofizioz, kasuaren berri emango diote epaitegiari. Epaitegiak auzitegi-medikuntzako profesional bat bidaliko du ospitalera, azterketa ginekologikoa egin eta laginak batu ditzan. Ondoren, profesional horrek txostena idatziko du, eta epaitegira bidaliko du.

Larrialdietako telefono-zerbitzua: SOS DEIAK

Erasoaren edo indarkeriaren abisua SOS DEIAKen bitartez (112) sartzen bada, zerbitzua bera arduratuko da bere barne-protokoloa martxan jartzeaz, eta, gertatutakoa kontuan hartuta, egoki deritzon agenteei pasako die abisua.

Zumarragako ospitaleko larrialdietarako zerbitzua

Erasoa pairatu duen emakumea larrialdi-zerbitzura bere kabuz joaten bada, ospitaleak ere bere barne-protokoloa jarriko du martxan; horren bitartez, Ertzainetxera eta guardiako epaitegira pasako du informazioa. Bikoiztasunak saihesteko, miaketa eta probak biltzea elkarrekin egingo dute epaitegiak bidaliko duen auzitegi-medikuntzako profesionalak eta ospitaleko ginekologia saileko guardiako medikuak.

Bestelako sarrera-puntuak:

Kasua beste zerbitzuren batera iritsiko balitz, zuzenean bideratuko litzateke larrialdietako telefono-zenbakira, eta hortik informazioa pasako litzazieke dagozkien zerbitzuei, telefono-bidez emandako informazioaz egindako balorazioaren arabera.

Esku hartzeko prozesuaren jarraipena eta amaiera:

Premia fisiko eta/edo emozional larrienak bete ondoren, laguntza lehenik eman dion zerbitzuko pertsonalak kaltetutako emakumeak erabilgarri dituen zerbitzuei buruzko informazioa emango dio, eta idatzizko baimena eskatuko dio kasuari buruzko informazioa aipatu zerbitzuei helarazteko.

GENERO INDARKERIA: Larrialdiko laguntza

Zein kasu har dezakegu larrialdikotzat?

Larrialdiko egoerak dira:

Berehalako erabakiak hartu behar direnean, eta egin beharrekoak ahal denik azkarren egin behar direnean, emakumeak berak egoera aitortu eta haren nahiz beraren mende egon daitezkeen adingabeen osotasun pertsonala arriskuan dagoenean, horretarako zioak izanik:

- Ageriko lesioak ditu (haren bikotekideak edo bikotekide ohiak eginak direla aitortu nahiz ez), nahiz eta lesio horiek ez duten berehalako arriskuan jartzen emakumearen bizia eta/edo osotasun fisikoa eta/edo emozionala.
- Salaketa jarri du, edo jarri asmo du.
- Hasiara batean arreta egin dion zerbitzuari jakinarazi dio etxetik berehala ateratzea erabaki duela.
- Hasiara batean arreta egin dion zerbitzuari jakinarazi dio bikote-harremana bertan behera uztea erabaki duela, eta erabaki horrek emakumearen osotasun pertsonala arriskuan jar dezakeela baloratzen da.
- Nahiz eta emakumeak onartu ez jasan dezakeen arriskua, arreta egingo dion zerbitzuko langileak arrisku adierazleak/sintomak nabaritu baditu, emakumeari esango dio zer gerta dakioken etxera itzuliz gero, edo oso denbora laburrean.

Arriskuen balorazioak ez dira ehuneko ehunean seguruak. Hala ere, zerbitzuetako langileen esperientzia ezinbestekoa da jasotako informazioa kudeatzeko, eta emakumeei hartutako erabakien ondorioak zeintzuk izan daitezkeen azaltzeko.

Zein agentek erantzungo diete larrialdi egoera horiei?

Larrialdiko egoeretan honako erakundeok izan daitezke, lehen instantzian, arduradunak:

- Oinarrizko gizarte-zerbitzuak
- Gizarte-larrialdietarako foru-zerbitzua
- Zumarragako ospitaleko larrialdietarako zerbitzua
- Oriako Ertzainetxea
- Udaltzaingoa
- Eskualdeko osasun-zentroetako oinarrizko osasun-laguntzako zerbitzuak, edo Beasaingo osasun-zentroko larrialdietarako zerbitzua.
- Tolosako guardiako epaitegia

Kasua aipatu ez den beste zerbitzuren batera iritsiko balitz, zerbitzu horrek berak bideratuko du kasua, emakumeak laguntza ahal denik azkarren jaso dezan.

Zein dira egin beharreko lanak eta eman beharreko urratsak?

Lehen arreta:

Alderdi orokorrak:

Beharrezkoa duen osasun-laguntza emango zaio anbulatorioko larrialdietarako zerbitzura edo dagokion osasun-zentrora eramanda.

Emakumeak **esku-hartze espezializatua eskatzen duten lesioak** baditu, Zumarragako ospitalera eramango dute, eta bertan barne-protokoloa jarriko dute martxan.

Emakumearen eta/edo haren kargura dagoenaren **osotasun fisikorako nahiz emozionalerako arriskurik** badago, ertzaintzarekin jarriko da harremanetan.

Emakumeak **pertsonarik badu bere kargura**, horren segurtasuna bermatuko da; lehenik, emakumearen desioak betez bere hurbileko ingurunean, eta, hurbileko ingurunerik ez badauka, gizarte-larrialdietarako foru-zerbitzuarekin harremanetan jarrita.

Oinarrizko gizarte-zerbitzuak:

Gizarte-langilea arduratuko da egoeraren balorazioa egiteaz, emakumeak emango dion informazioa aintzat hartuta.

Hainbat zerbitzutarako eskumena edukiko du babes-agindurik gabe ere. Halaber, emakumeak bestelako arreta-biderik hartu nahi ez badu, gizarte-zerbitzuek babes-agindu bat eska diezaiokete epaitegiari, emakumeak hala eskatuta. Babes-agindu honen eskaera egiteak salaketa jartzearen ondorio berdinak ditu, beraz emakumeari hau denaren berri ematea gomendatzen da.

Zerbitzuaren lan-ordutegitik kanpo, kasua **gizarte-larrialdietarako foru-zerbitzura** bideratuko da.

Oriako Ertzaintexea:

Emakumeak gertakaria ertzaintzan salatzen badu, edo ertzaintzak esku-hartze urgentea behar duen gertakari baten berri edota susmoa badu, ertzaintzari dagokion barne-protokoloa jarriko du martxan, eta barne-espedita bat ireki eta kasuaren arriskua baloratzeko azterketa egingo du.

Lagun egitea:

Oinarrizko gizarte-zerbitzuak:

Emakumeak ospitaleko esku-hartze espezializatua behar badu, oinarrizko gizarte-zerbitzuko langileak lagun egingo dio (ez da ospitalera eramateaz arduratuko) Zumarragako ospitalean garatuko den prozesuan. Halakorik posible ez bada, gizarte-larrialdietarako foru-zerbitzua arduratuko da lagun egiteaz.

Oriako Ertzainetxea

Emakumeak ospitaleko arreta espezializatua behar badu, eta haren osotasun fisikoa nahiz emozionala arriskuan badago, ertzaintzak egingo dio lagun emakumeari. Emakumeak salaketa jarri nahi badu, ertzaintza arduratuko da prozedura horretaz.

Informazioa, aholkua eta bideratzea:

Lehenengo arretaz arduratu den zerbitzuak emango dio emakumeari bere esku dituen zerbitzuei eta baliabideei buruzko informazioa, ahoz eta idatziz (salaketarik jarri ez badu ere).

- **Aholkularitza juridikoa:** ordubeteko zerbitzua, Gipuzkoako Foru Aldundiak emana.
- **Arreta psikologikoa:** Foru Aldundiak emandako zerbitzua; 18 saio, luzatzeko aukerarekin.
- **Gizarte-aholkularitza:** prestazio ekonomikoak.
- **Osasun-zentroak:** familia-medikua.

Emakumeari, bere zonaldean dauden udaleko gizarte-laguntzako zerbitzuei buruzko informazioa emango zaio.

Kasua beste inora bideratu aurretik, eta zerbitzuak koordinatze aldera, emakumeari beste zerbitzu batera bideratzeko **baimen idatzia** eskatuko zaio. Emakumeak horretarako baimena ematen ez badu, erabakia errespetatuko da.

Ertzaintza **ofizioz jardungo da** baldin eta genero-indarkeriaren inguruko susmorik badu. Horrez gain, arrisku-balorazio propioa egingo du, eta barne-protokoloak arrisku-maila bakoitzerako ezarrita dituen jarduerak abiaraziko ditu.

Esku hartzeko prozesuaren jarraipena eta amaiera:

Ondorengo zerbitzu horiek arduratuko dira kasuaren jarraipenaz:

- **Oinarrizko gizarte-zerbitzuak:** aurrez emakumearen eskura jarritako baliabideak edo zerbitzuak martxan jarri, prozesuaren jarraipena egin, eta prozesua amaitutzat joko duen zerbitzua da.
- **Ertzaintza / udaltzaingoa:** emakumea babesteko neurriez, eta erasotzaileari jarraipena egiteaz arduratuko dira, ertzaintzak elkarriketen bitartez bi hilabetean behin egingo duen arrisku-balorazioan oinarrituta. Babes-aginduk artxibatuta, sei hilabete pasa beharko dira gertakaria ixteko.
- Biak.

Arestian deskribatutako zerbitzuek emakumeari **udaletako berdintasun-atalei eta** zonaldean egon daitezkeen **mugimendu feministari nahiz emakumeen taldeei** eta horiek eman diezazkioketen zerbitzuei buruzko informazioa emango diote.

Zein kasu har ditzakegu lehentasunezkotzat?

Lehentasunezko egoerak izango dira:

Berehalako erabakia hartu beharrik eskatzen ez duten egoerak, honako zioak tarteko:

- Emakumeak ez du lehen neurri gisa salaketa jarri nahi, eta erabaki hori hartzeko denbora behar du.
- Denbora behar du gertatzen ari dena bere egiteko, eta egoerari aurre egiteko estrategiak errepasatzeko.
- Tratu txarra eman edo eman izan dion bikotekidearekin haustea edo harengandik bereiztea ekarriko duen erabakiren bat hartu aurretik berariazko zerbitzuen etengabeko babesa behar du.
- Bestelako arrazoiren bat.

Zein eragilek erantzungo diete lehentasunezko egoera horiei?

Lehentasunezko egoeretan honako erakundeok izan daitezke, lehen instantzian, arduradunak:

- Oinarrizko gizarte-zerbitzuak
- Gizarte-larrialdietako foru-zerbitzua
- Eskualdeko osasun-zentroetako oinarrizko osasun-laguntzako zerbitzuak, edo Beasaingo osasun-zentroko larrialdietarako zerbitzua.
- Ertzaintza
- Udaltzaingoa

- Udaletako berdintasun-atalak
- Tolosako guardiako epaitegia

Zein dira egin beharreko lanak eta eman beharreko urratsak?

Oinarrizko gizarte-zerbitzuak:

Emakumea oinarrizko gizarte-zerbitzuetara iristen denean, gizarte-langileek egingo diote arreta, emango diote aholkua, eta emakumeak bere esku dituen zerbitzuei eta baliabideei buruzko informazioa emango diote (nahiz eta salaketarik jarri ez).

- **Aholkularitza juridikoa:** ordubeteko zerbitzua, Gipuzkoako Foru Aldundiak emana.
- **Arreta psikologikoa:** Foru Aldundiak emandako zerbitzua; 18 saio, luzatzeko aukerarekin.
- **Gizarte-aholkularitza:** prestazio ekonomikoak.

Gizarte-larrialdietako foru-zerbitzua

Oinarrizko gizarte-zerbitzuen lan-orduetatik kanpoko arretaz arduratuko da. Lehen esku-hartzea bukatuta, emakumeari dagozkion oinarrizko gizarte-zerbitzuetara bideratuko da kasua, jarraipena egin dezan.

Osasun-zentroak:

Emakumeari eskuragarri dituen baliabideei buruzko informazioa emango zaio, eta idatzizko baimena eskatuko zaio haren datuak oinarrizko gizarte-zerbitzuetara bidaltzeko, emakumeak aholkularitza jaso dezan eta prozesuan zehar lagun egin diezaioten.

Oriako Ertzainetxea

Emakumearen osotasun fisikoa nahiz emozionala arriskuan badago, Ertzaintzak egingo dio lagun emakumeari. Emakumeak salaketa jarri nahi badu, Ertzaintza arduratuko da prozedura horretaz. Dena den, osotasun fisikoa nahiz emozionala arriskuan dela ikusiko balu Ertzaintzak, ofizioz jarri beharko du salaketa 1/2004 LO-ari jarraituz.

Emakumeari idatzizko baimena eskatuko zaio haren datuak oinarrizko gizarte-zerbitzuetara bidaltzeko, emakumeak aholkularitza jaso dezan eta prozesuan zehar lagun egin diezaioten.

Arreta-prozesuak iraun bitartean, kasua genero-indarkeriako kasu urgente bihur daiteke; hortaz, aipatu atalean jasotakoari helduko zaio atzera.

3. PROTOKOLOAREN JARRAIPENA ETA KOORDINAZIOA

Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko errealitatea oso aldakorra denez, nahitaezkoa da besteak beste protokoloaren inplementazioa kontrolatuko duen jarraipenerako batzorde bat eratzea.

Garrantzitsua da batzorde hori indarkeria pairatzen duten emakumeei bideratutako arretan aktiboki parte hartzen duten eragileek osatzea, baita, ordea, politikariak inplikatzea ere, berariazko aurrekontu-partidak gaitzea ezinbestekoa duten baliabideak martxan jartze aldera. Azken finean, erabilgarri dauden bitartekoak emakumeen premietara egokitzen direla bermatuko duen organismo bat da.

I. KOORDINAZIO BATZORDEKO kideak

- Udaletako berdintasun-ataleko teknikariak
- Udaletako gizarte-zerbitzuetako ordezkariak
- Oriako Ertzainetxeko ordezkariak
- Beasaingo, Lazkaoko eta Ordiziako udaltzaingoen ordezkariak
- Beasaingo, Lazkaoko eta Ordiziako osasun-zentroetako ordezkariak
- Goierriko udaletako ordezkari politikoak
- Goiekiko gizarte-ataleko teknikaria

Protokoloaren jarraipenaren arlo teknikoaz arduratuko denak solaskidetza lana egingo du talde feministekin eta emakumeen taldeekin, eta koordinazio saioen inguruko emaitzei buruzko informazioa emango die.

II. KOORDINAZIO BATZORDEAREN eginkizunak

- Balizko bakoitzean jarraitutako laguntza-zirkuituaren azterketa zehatza eta balorazioa. Honetarako, datuak babesteko legeari erreparatuz, emakumeak baimen berezia eman behar du berari buruzko datuak beste erakundeekin partekatzeko.
- Hobetu beharreko alderdiak.
- Osatu gabeko prozesuen analisisa egin.
- Udaletako beste sail batzuk, eta beste instituzioen eta/edo erakundeen inplikazioa eskatzen duten kasuetara egokituko diren soluzioak hartu.
- Antzemandako premia berriei eta prozesuan beste instituzio eta zerbitzu batzuk txertatzeko moduari buruzko debatea.
- Legeetan egingo diren aldaketak txertatu.
- Protokoloan jasotako edukiak eta ibilbideak ebaluatu.
- Inplikaturako eragileen arteko koordinazioa ebaluatu.
- Tokiko kasuistikaren analisisa eta sistematizazioa.
- Kasuen kopurua.
- II. Akordioan ezarritako jarraibideak ez balira beteko, kexak jaso eta II. Akordioko jarraipen batzordera bideratzea (Emakundeko zuzendari batzordearen buru den heinean)
- Erabilitako bitartekoak...

III. JARRAIPEN BATZORDEAK egingo dituen bileren maiztasuna

Hasiera batean, jarraipen-batzordea urtean bitan elkartuko da: maiatzean eta azaroan.

IV. Nor arduratuko da deialdiez, jarraipenaz...?

Jarraipen batzordearen kudeaketaz Goiekiko arlo soziala arduratuko da.

4. KONTAKTUEN / BALIABIDEEN AGENDA

UDAL EREMUA

Berdintasun Sails:

UDALA	IZENA	MAIL	TELEFONOA
Ordizia	Kristina Altuna Ainhoa Irazu	kaltuna@ordizia.eus airazu@ordizia.eus	943 80 56 10
Beasain	Elixabete Manterola	berdintasun@beasain.net	943 08 76 63

Zerbitzu sozialak:

UDALA	IZENA	MAIL	TELEFONOA
Altzaga	M. Jose Arrizabalaga	gizarte.altzaga@udal.gipuzkoa.net	943 88 20 00
Arama	M. Jose Arrizabalaga	gizarte.arama@udal.gipuzkoa.net	943 88 07 39
Ataun	Miren Martinez	gizartezerbitzuak@ataun.net	943 180 011
Beasain	Karmele Elola	kelola@beasain.net	943 02 80 75
Gabiria	Miren Martinez	gabiria@udal.gipuzkoa.net	943 88 07 34
Gaintza	M. Jose Arrizabalaga	gizarte@zaldibia.net	943 88 20 00
Idiazabal	Marian Jauregi	gizarte@idiazabal.info	943 187 164
Itsasondo	Iker Uson	gizarte.itsasondo@udal.gipuzkoa.net	943 88 11 70
Lazkao	Laxia Urteaga	gizarte@lazkao.net	943 08 80 80
Legorreta	Itsaso Urretagoiena	gizarte@legorretakoudala.net	943 08 52 90
Mutiloa	Begoña Olarte	gizarte.mutiloa@udal.gipuzkoa.net	666 149 353
Olaberria	Elena Orts	gizarte.olaberria@udal.gipuzkoa.net	943 88 12 32
Ordizia	Jone Herrero	jherrero@ordizia.eus	943 80 56 10
Ormaiztegi	Miren Martinez	gizarte.ormaitzegi@udal.gipuzkoa.net	943 88 26 60
Segura	Begoña Olarte	gizarte.segura@udal.gipuzkoa.net	943 80 10 06
Zaldibia	M. Jose Arrizabalaga	gizarte@zaldibia.net	943 88 20 00
Zegama	Begoña Olarte	gizarte.segura@udal.gipuzkoa.net	666 149 353
Zerain	Begoña Olarte	gizarte.segura@udal.gipuzkoa.net	666 149 353

Udaltzaingoa

UDALA	IZENA	MAIL	TELEFONOA
Beasain	Hilario Urretabizkaia	udaltzaingoa@beasain.net	656 70 10 02
Lazkao	Mikel Zabala	udaltzaingoa@lazkao.net	943 088 080
Ordizia	Aitor Eskalante	aescalante@ordizia.eus	943 80 56 16

Emakumeen elkarteak eta talde feministak:

TALDEA	IZENA	MAIL
Kimetz Emakume Elkartea - Ordizia	Belén Balerdi	balerdi-b@hotmail.com
Asmube Emakume Elkartea - Beasain	Maria Jesus Auzmendi	asmube@kzgune.net
Bibloetak talde feminista - Ataun	Ataungo ongizate saila	ainaragmujika@gmail.com
Bilgune Feminista – Segura	Segurako ongizate saila	eripasaez@gmail.com

ESKUALDE EREMUA

Oriako Ertzainetxea

ARDURA	IZENA	MAIL	TELEFONOA
Ertzainetxeko burua	Begoña Zuazolazigorruga	bzuazolazigorruga@hsdi.ej-gv.es	943 088 880
Genero Indarkeria gaien arduraduna	Rodolfo Precedo	rprecedo@hsdi.ej-gv.es	943 088 880

Osakidetza

ARDURA	IZENA	MAIL	TELEFON OA
Beasaingo osasun zentroko arduraduna	Justo Mujika	justo.mugicacampos@osakidetza.net	677 78 31 36
Beasaingo osasun etxeko medikua	Begoña San Juan	begoña.sanjuanperez@osakidetza.net	650 63 03 19
	Arantza Sukia	mariaaranzazu.suquiaesnaola@osakidetza.net	605 762 531

TOLOSAKO EPAITEGIA

Tolosako Epaitegian tarteka artatu daitezke denuntziarik jarri ez duten emakumeak. Tratu txarrak jasan ezkerok zer egin jakiteko informazio eske gerturatzeko dira. Lehen informazio hori SAVen (Servicio de Atención a la Mujer) bitartez ematen da normalean, prozesua abian jartzeak ekar ditzakeen ondorioen inguruko informazioa ematen da. Emakumeak lehen informazio hori jaso ez badu magistratu arduradunak helaraziko dio.

Kontaktua:

- **Telefonoa:** 943 00 26 01
- **Fax:** 943 00 26 06
- **Helbidea:** San Juan Pasealekua, 3 (20400 Tolosa)

Urgentzietako zerbitzuak

GIZARTE LARRIALDIETARAKO FORU ZERBITZUA

Eskainitako zerbitzua:

Gipuzkoan etxeke indarkeria edo/eta indarkeria sexuala jasaten duten emakumeen urgentziazko segurtasun beharrei erantzuten die zerbitzu honek. Lehen balorazioa egin ostean, horrela behar izan ezker, biktima dagokion harrera zerbitzura bideratzen dute.

Erakundea:

Gipuzkoako Foru Aldundia- Giza Politikaren Saila

Kontaktua:

- **Telefonoa:** 943 224 411 / 112 (SOS deiak)
- **Ordutegia:** 24ordu urte osoa.

LARRIALDITARAKO HARRERA ZENTRO FORALA (Urrats)

Eskainitako zerbitzua:

Gipuzkoan, heuren etxea utzi beharrean diren, etxeke indarkeria edo/eta indarkeria sexuala jasan duten emakumeentzako harrera zerbitzua da. Biktimen kargura dauden pertsonak ere (seme-alaba nahiz adineko dependentziadunak) ere jasotzen dira. Gipuzkoa osorako zerbitzua da, baina Donostian zerbitzu munizipala daukate.

Erakundea:

Gipuzkoako Foru Aldundia- Giza Politikaren Saila

Kontaktua:

- **Telefonoa:** 943 224 411 (Larrialditako Zerbitzu Forala)
- **Ordutegia:** 24ordu urte osoa.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA- Giza Politikaren Saila

Eskainitako zerbitzua:

Bertan kudeatu eta koordinatzen dira Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaintzen dituen hainbat zerbitzu: laguntza psikologikoa, prozesu judiziala abiatu aurreko aholkularitza eta urgentziazko etxebizitza.

Kontaktua:

- **Telefonoa:** 943 112 576 / 943 112 572
- **Helbidea:** Zarategi Pasealekua, 99 –Txara II (20015 Donostia)
- **Ordutegia:** 24ordu urte osoa.

EMAKUMEEN INDAKERIAREN EPAITEGIA (Donostia)

Kontaktua:

- **Telefonoa:** 943 00 43 83
- **Helbidea:** Teresa Calcuta Plaza, 1 (Atotxa), 2.solairua (20012 Donostia)
- **Ordutegia:** 9'00-14'00

FISKALTZA (Donostia)

Kontaktua:

- **Telefonoa:** 943 00 07 17
- **Fax:** 943 00 07 03
- **Helbidea:** Teresa Calcuta Plaza, 1 (Atotxa), 2.solairua (20012 Donostia)
- **Ordutegia:** 9'00-14'00

MÉDIKU FORENSE KLINIKA (Donostia)

Kontaktua:

- **Telefonoa:** 943 00 43 50
- **Helbidea:** Teresa Calcuta Plaza, 1 (Atotxa), beheko solairua (20012 Donostia)

ORIENTAZIOA JURIDIKOAREN ZERBITZUA

Eskaintako zerbitzua:

Ofiziosko abokatua eskatzeko tramitazioa egiten da, baita doako justizia eskatzekoa ere.

Erakundea:

Gipuzkoako abokatuen elkargo prestua

Kontaktua:

- **Telefonoa:** 943 00 43 56 / 943 00 08 65
- **Helbidea:** Teresa Calcuta Plaza, 1 (Atotxa), 4.solairua (20012 Donostia)

SOS deiak - 112

Eskaintako zerbitzua:

Telefonoz jasotako informazioaren arabera lehen sorospena antolatzeaz arduratzen dira, beharrezkoak diren zerbitzuak aktibatuz. Koordinazioaz arduratzen da.

Erakundea:

Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila

Kontaktua:

- **Telefonoa:** 112
- **Ordutegia:** 24 ordu urte osoa.

ARRETA TELEFONIKOAREN ZERBITZUA 24 ordu

Eskaintako zerbitzua:

Telefono bidezko zerbitzu honi esker indarkeria edo/eta indarkeria sexuala jasan duten emakumeei informazioa eskaintzen zaie.

- Zerbitzua debaldekota da.
- Informazioa hainbat hizkuntzetan ematen da.
- Deitzen duenaren telefonoan ez du arrastorik uzten.
-

Erakundea:

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketarako Saila.

Kontaktua:

- **Telefonoa:** 900 840 111
- **Ordutegia:** 24 ordu urte osoa.

BIKTIMEN ARRETA ZERBITZUA

Eskaintako zerbitzua:

Delituen biktima direnei babes juridiko, psikologiko (lehenengo harrera) eta asistentziala eskaintzen zaie prozedimentu polizial eta juridikoek dirauten bitartean. .

Erakundea:

Eusko Jaurlaritzaren Herri Administrazio eta Justizia Saila

Kontaktua:

- **Telefonoa:** 900 100 928 / 943 000 768
- **Helbidea:** Teresa Calcuta plaza, 1 (Atotxa) planta baja (20012 Donostia)

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA, ETXEKO INDARKERIA ETA ERASO SEXUALEN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAT AHOALKULARITZA JURIDIKO ZERBITZUA

Eskaintako zerbitzua:

Emakumeak denuntzia edo aldentze eskaera jarri aurretik zerbitzu honi esker aholkularitza juridiko espezifikoa jaso dezake. Aholkularitza hau, gehien bat, polizia etxean eskatzen da, baina epaitegi nahiz zerbitzu sozialetan ere eskatu liteke.

Erakundea:

Eusko Jaurlaritza – Etxebizitza eta Gizarte zerbitzuen Saila, Gipuzkoako abokatuen elkargo prestuak eskainita

Kontaktua:

- **Telefonoa:** 902 103 908

ATXILOTUARENTZAT ORIENTAZIO ETA AHOLKULARTIZA ZERBITZUA

Eskainitako zerbitzua:

Atxilotuei udaltzaingoko prozedimentuei buruz arreta eta orientazioa eskaintzen die.

Erakundea:

Eusko Jaurlaritza – Justizia, Lanbide eta Segurtasun Sozialaren Saila

Kontaktua:

- **Telefonoa:** 943 00 07 69
- **Helbidea:** Teresa Calcuta plaza, 1 (Atotxa) beheko solairua (20012 Donostia)

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KOORDINAZIO GUNEA

Eskainitako zerbitzua:

Tratu txar kasuetan ematen diren neurrien jarraipena egiteaz arduratzen da (babes aginduak, aldentze neurriak, etab.) Kasuan inplikatuak egon litezkeen erakundeak koordinatzeaz arduratzen da.

Erakundea:

Eusko Jaurlaritza – Herri Administrazio eta Justizia Saila

Kontaktua:

- **Telefonoa:** 944 016 726

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETARAKO SAILEKO GIZARTE ZERBITZUETARAKO ZUZENDARITZA

Eskainitako zerbitzua:

LO 1/2004ko, 27. Artikuluko diru-laguntzak bideratzen dira bertan, Eusko Jaurlaritzak indarkeria pairatu duten emakumeen eskubideak koordinatzen dira eta haien inguruko informazioa ematen da profesionalei (gutxienezko errenta bermatzeko salbuespenak indarkeria kasuetan, etxebizitza baliabideak, ikasketak egiteko matrikula salbuespenak etab.).

Erakundea:

Eusko Jaurlaritza

Kontaktua:

- **Telefonoa:** 945 019 327
- **Posta elektronikoa:** ana-aldekoa@ej-gv.es
- **Helbidea:** Donostia-San Sebastián kalea, 1 (01010 Vitoria-Gasteiz)

EMAKUNDE – EMAKUMEAREN EUSKAL INSTITUTUA

Eskainitako zerbitzua:

Besteak veste, II. Akordioko koordinazioaren arduraduna; haren inguruko kexak bideratzen dira.

Kontaktua:

- **Telefonoa:** 945 016 746
- **Posta elektronikoa:** emakunde@ej-gv.es
- **Helbidea:** Manuel Iradier 36 (01005 Vitoria-Gasteiz)

5. DATU PERTSONALAK PARTEKATZEKO / EMATEKO BAIMENA

Izen-abizenak:

Nortasun agiri zenbakia: (NAN, pasaportea, bestelakoa)

Idatzi honen bitartez,

Beharrezkoa den kasuetan, nikemandako datu pertsonalak, argazkiak edota bideoak honako eragileei helarazteko baimena ematen dut:

- Udaleko berdintasuneko langileari
- Udaleko gizarte-langileari
- Sendagileari
- Pediatrari
- Eskola-zuzendariari
- Herriko mugimendu feminista edota emakume elkarteari
- Oriako Ertzainetxeko arduradunari
- Herriko udaltzainei
- Bestelakoei:

Eta hori horrela dela ziurtatzeko jarraian sinatzen dut.

Sinadura:

Data: